AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

716

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiteko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2011ko urriaren 3an eman zuen Aginduaren laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (2011ko urriaren 14ko EHAA, 196. zk.), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iraide Zuazua Calle andrea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzako goi kargudunaren idazkari izendatzea. Lanpostuaren datuak: kodea: 520010; dotazioa: 69; taldea: C/D; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria VI-A.

Bigarrena.–. Izendapen honek 2012ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organo berari, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik harako hilabeteko epean. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren ondorengotik aurrera bi hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 25a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.